

ICAN enpresak funtziona dezan, hainbat baliabide erabili beharko ditugu gure enpresan, gehienak teknologikoak izango direlarik; hau da, ordenagailuak eta mugikorrak.

Alde batetik, kostuak murrizte aldera, ordenagailu eta mugikorren erosketa, enpresa berari egingo diogu, era honetan, deskonturen bat jasotzeko aukera izango baitugu. Gainera, aplikazioa sortzeko zerbitzua ere, informatika enpresa honi erosiko diogu.

Bestalde, online klase partikularrak emateko, irakasle garrantzitsuenak gu izango gara baina beste aditu batzuk ere kontratatu beharko ditugu, irakasle lanetan arituko direnak.

Apunteei dagokienez, edonork izango du apunteak APP honetara igotzeko eskubidea, beti ere, alde aurretik kontratatuak izan diren adituen onarpena eman bada. Modu honetara, apunte desegokiak sahistuko ditugu, saltzen ditugun apunteak guztiz fidagarriak eta baliagarriak direla ziurtatuz. Gure muina ahalik eta apunte zehatz eta zuzenak ematea baita.